



BEZEROEKIN HARREMANA

Guk gure langileak bezerotzat hartzen ditugu, guk zerbitzu bat eskaintzen baitiegu, eta zerbitzu horrekin dirua irabazten dute. Langileekiko harremana oso familiarra izango da gure aldetik, gure helburua etxean bezala sentitzea baita. Sare sozialetan, web orrian edo gurekin zuzenean harremanetan jarrita, sortzen diren arazo edo zalantza guztietan lagunduko dugu.

Azkenean, langileak euskara maila egokia ez duten edo zuzenean euskara mailarik ez duten pertsonak dira; orduan, edozein zailtasun izanez gero, arazorik gabe lagunduko diegu. Langileren batek udalarekin edo paper batzuekin arazoren bat izanez gero, ez dugu arazorik izango laguntzeko, prozesua errazten saiatuz.

- **Bezeroen harremana sare sozialen bidez:**



Gure bezeroekin sare sozialengatik izango dugun tratua eskain dezakegun onena izango da. Ahalik eta lasterren erantzuten saiatuko gara pertsonak izan ditzaketen zalantzak argituz. Informazio gehiago egongo da igoko ditugun argazkietan. Tratua ez da gure lokalera etorriko balitz bezain hurbila izango, baina mezuei errespetuz eta modu egokian erantzungo diegu, konfiantza eta familiako giroa lortzeko.

- **Lokaleko bezeroekiko harremana:**

Kasu honetan, harreragilearen eta bezeroaren arteko harremana presentziala da, eta, beraz, gure lehenetsua inpresio ona ematea da, eroso sentiarazteko beharrezkoa baita. Halaber, egokiaraztea bilatzen dugu, eragozpenik egon ez dadin. Zerbitzu-adar asko dituen, adina aldatzen doa, eta, beraz, desberdina da 14 urteko neska bat eta 35 urteko neska bat, haien beharrak eta hitz egiteko moduak desberdinak baitira.



- **Liburuxken bidezko harremana:**



Liburuxkak batez ere informazioa zabaltzeko erabiliko dugu. Adibidez, bileren ordutegia, gure kontaktua, gure bulegoaren kokapena... Bezero berriak erakartzeko erabiliko dugu. Kasu honetan harremana ez da oso pertsonala izango, baina liburuxkan gure telefono zenbakia edukiko dute, edozein zalantza argitzeko.

- **Bezeroekiko harremana web bidez:**

Web orrian, liburuxkan bezala, informazioa eskainiko dugu, baina kasu honetan digitalki. Bezeroekin harremana ez da oso zuzenekoa izango, baina web-gunean, zalantzak argitzeko atal bat egongo da. Zalantza argitzen ez bada, telefono zenbaki bat ere egongo da eskuragarri.

<https://sites.google.com/lbikasleak.eus/i-o-s?usp=sharing>